

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 218. zkia. 2013ko abendua



**Ermuarrak  
gimnasia  
hipopresiboan  
trebatzen**



ZERBITZU INTEGRALA

# LANTALDE PROFESIONAL

# BIKAINA, IZEN-ABIZENEKIN

TELEFONO BIDEZKO ARRETA



URGENTZIAK  
24 ORDUTAN,  
688 608 142

Urgentzietako Kostu Gehigarria.



ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara  
zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara

ETXEZ-ETXERO  
ARRETA-ZERBITZUA

Etxeko arreta:  
Pazientea jaso eta etxera itzuli

**GALDETU!**



EZKAINZA  
BEREZIAK

Jarraitu urte osoan gure sasoian-sasoiko promozioak.

Abantaila ekonomiko handiak eta bestelako aukera odontologikoak.

**Aprobetxatu!**



## AKREDITAZIOAK

**Antonio Murillo** Doktorea

Hezur Birsorkuntza eta Ehun Bigunen Maneiuko Zuzendaria.

**Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.

**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua

**Madrilgo Unibertsitate Konplutesean, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan, eta Sevilla, Bartzelona, Almeria, Lleida, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Ainhoa Zulueta** Doktorea

Odontologian Lizentziatua.

**Euskal Herriko Unibertsitatea.**

Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian. **Leongo Unibertsitatea.**

Aho Kirurgian Diplomatu.

**Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatu. **Madrilgo Unibertsitate Konplutesean.**

Hortz-Estetikan Diplomatu.

**Autran Institutua. Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza.

**New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso doktorea.**



## MUTUA ETA ASEGUROAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

... **GALDETU!**



**IRAZABAL**

clínica dental Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**ARGITARATZAILEA:**Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688632876  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González,  
Ane Saénz eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Dorleta Vidal.

**LAGUNTZAILEAK:**Amaia Arriaga,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López, Pello Mugarza,  
Valentín Mugarza  
eta Isa Prieto.**ARGAZKIAK:**Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Errotabarri ET,  
Estibalitz González,  
Valentín Mugarza, Isa Prieto,  
Ermuko Udala, Udala  
Liburutegia, Julio Uzquiza  
eta Dorleta Vidal.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.400 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

*...Fede Iturriagagoitiak batuta*

## TXORI HANDIA *Alcaudón dorsirrojo Lanius collurio*



Izen hori badakar ere, ez da txori lar handia, baina zaratatsua... akabo ba! Karraskadan, "kaaak-kaaak", eskilazoa ematen du, soinua honena baino motelagoa duen arren. "Ene, eskillazuak ditxuk!" eta ez, gero ikasi nuen hauek zirela. Beroa, nerbiosoa, txori gogorra da. Baina geldi-geldik egoten ere badaki, gose denean endemas: buztanari eraginez paratu bai eta euli, txipilatoi edo erleren bat pare xamarrera datorkionean, dra! egiten dio salto gainera. Harrapakina hobeto zehetzeko-edo alanbre-sare zein arantzaz puntetan ziztatzen du, basoari bere ukitu danteskoa emanez. Guztira gure parajeotan ze ibiliko dira, dozena erditxo bat? Bikoteka, hori bai!

## Hilabete honetan...

**MUNDUKO AHOTSAK....4**

Carlos Pommier (Bolivia)

**ELKARRIZKETA .....5-7**

Julio Uzquiza, 'Stop Desahucios'

**MALLABIAN ZER? .....8-9**

Lurdes Rodríguez, harakina

**MOTZEAN.....10-11**

Juanita Ibaibarriagaren sari banaketa

**GABONETAKO  
EROSKETA GIDA.....12-13****ERMUAN ZER? .....8-9**

Ekimen ugari Gabonetan

**BOTEPRONTOAN .....16**

Maite Areitioaurtena

**KIROLZALE .....17**

Julene Irazu hipopresiboetan

**IRITZIA .....18**

20 urte 'ikusten laguntzen' - Isa Prieto

**SALEROSKETAK .....19**

Saldu, erosi edo agurtu

**ANTZINAKOAK.....20**

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

**KALEKO INKESTA .....21**

Jostailu sexistak

**AGENDA .....22**

Urtarrileko agenda

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# Carlos Pommier

Duela 7 urte 'erdi etorri zen Carlos Ermura, munduko zenbait lekutan bizi eta ikasketak burutu eta gero. 38 urte ditu, bi seme eta enpresarialetan lizentziatua da. Ingelesa eta frantsesa menderatzen ditu, eta aleman apur bat ere badaki. Irailetik aurrera, euskara ikasten dihardu eta polito hitz egiten du.

- *Boliviakoa izan arren, Carlos Pommier Somerstein da zure izena. Nondik datoz zure abizenak?*

Nire aitona birraitona frantsesa zen. Paraguaira emigratu zuen eta haren semea Boliviara joan zen. Pommier hitzak 'sagarrondo' esan nahi du frantsesez. Bestalde, nire amaren aita Ukrainakoa zen, judutarra, eta II Mundu Gerran ihes egin behar izan zuen. Hala ere, Somerstein alemana da eta 'udako harria' esan nahi du.

- *Nolakoa zen zure bizitza Bolivian?*

Garai batean lan ona izan nuen, baina enpresak arazoak izan zituen eta utzi nuen. Ordutik aurrera asko kostatu zitzaidan beste lan bat topatzea, gehiegizko ikasketak nituelako. Gano-rarik gabeko lan batetik bestera ibili nintzen eta irtenbideak bilatzen hasi ginen emazte ohia eta biok.

- *Zer ikasi duzu, bada?*

Enpresarialetan lizentziatua naiz eta masterra daukat. Suitzan ikasi nuen 7 urtez, beka lortu eta gero.



- *Zer dela eta erabaki zenuten Ermura etortzea?*

Beste herrialde batzuk kontuan izan genituen, tartean Australia eta Kanada, baina paper asko behar ziren. Emaztearen ama Ermuan bizi zenez, hona etorri ginen gure bi semetxoekin.

- *Aldaketa erraza izan zen?*

Ez, antzekotasunak dituzten arren, kultura ezberdinak dira hemengoa eta Boliviakoa. Seme nagusia integratzea kostatu zitzaigun batez ere, baina hemengo jendeak asko lagundu zigun.

- *Zer espero zenuen Ermuaz?*

Zorionez leku ezberdinetan bizi izan naiz. 15 urterekin Txilera bizitzera joan nintzen urtebetez, aitaren lana zela-eta; ostean, Suitzara. Suitza oso leku kosmopolita da eta, bertan nengoen, Frantzia, Espainia, Alemania, Italia eta Ingalaterra bisitatu nituen.

Horri esker, pentsatzeko modu ireki eta zabala daukat, eta etortzean ez nuen aurreiritzirik: topatzen ditudan ohituretara egokitzen naiz.

- *Hemen lana topatu zenuen?*

Bai. Nire ikasketengatik beste zer-bait nahiko nuke, baina zorionez, lana daukat, nire bi semeekin bizitzeko beste, etxea, janaria eta arropa. Eta osasuna! Zorionsua naiz, lasai bizi naiz.

- *Boliviara bueltatu izan zara?*

Ez naiz sekula bueltatu. Osaba-izeko, lehengusu-lehengusinak eta amama bat baino ez zaizkit geratzen bertan. Anaia bat daukat, ni baino 5 urte gazteagoa, medikua da eta Bartzelonan bizi da bere familiarekin. Noizean behin elkarri bisita egiten diogu. Bera udan etorri zen eta ni Gabonetan joango naiz umeekin.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**


**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua  
euskalduntzen



**Julio Uzquiza, Debabarreneko Stop Desahucios plataformako kidea:**

## **“Kaltetuak prozesu luze eta mingarria bizi du gure atea jo aurretik”**

Duela urtebete sortu zen Debabarreneko ‘Stop Desahucios’ plataforma eta bertako kide da Julio Uzquiza ermuarra. Hamar boluntariok eta kaltetuk baino gehiagok osatzen du talde hau eta egoera larrian daudenei lagundu eta maila politikoan eragitea da euren helburua. 2012an, 115 etxegabetze burutu ziren egunean, hau da: ia 15 minuturo familia bat kalean geratu zen, Espainiako Jabetza-Erregistroaren Elkargoaren arabera. Gai delikatua bada ere, interesa edo beharra dutenek [stopdesahuciosbajodeba@gmail.com](mailto:stopdesahuciosbajodeba@gmail.com) helbidera idatzi edo 627934675 telefonora deitu dezakete.

- Zer dela eta sortu zen Debabarreneko Stop Desahucios plataforma?

Etxegabetxeek kaltetutako zenbait herritarrek sustatu zuten eskualdeko plataformaren sorrera. Ermuari dago-kionez, Altermuatiba taldeak Legegintzako Herri-Ekimenaren aldeko sinadurak biltzeari ekin zionean murgildu zen kontu honetan.

- Estatu osoan daude Stop Desahucios plataformak sakabanatuta, ezta?

Bai, eskualdeka antolatutako taldeak dira, gehienak kaltetutakoek bultzatuta, eta guztiak Hipotekak Kaltetutako Plataformaren (PAH) baitan daude.

- Zeintzuk dira plataformaren helburuak?

Etxegabetzerik ez egotea, noski. Hori lortzeko bi esparrutan egiten dugu lana: politikoa eta praktikoa. Esparru praktikoa premiazkoe-na da, laguntza eske datozen familiei berehalako laguntza eman behar zaielako. Familiez gain, bananduak eta dibortziatuak datoz sarri, familiaren arazo ekonomikoak euren gain jausi direlako. Bestalde, maila politikoa, mozioak aurkezten ditugu, kontzentratioak, epaitegira joan...  
- Nola egiten duzue lana?



Prozesuaren fase ezberdinetan dauden herritarrak hurbiltzen zaizkigu: diru ezagatik hipoteka ordaintzeari utziko diotenak, dagoeneko ordaintzeari utzi diotenak eta prozesu judiziala martxan dutenak ere. Euren kasua aztertu, irtenbide legalak bilatu eta laguntza ematen saiatzen gara. Hipoteka-kontratuak ulertzeko zalantzak ditugunean, Donostiako plataforman dauden abokatu-entzuei galdetzen diegu, eurak ere boluntarioak.

- Noiz gertatzen da etxegabetzea?

Hipoteka bateko baldintzak betetzen ez direnean, bankuak (edo mailegatzaila

partikularrak) demanda judiziala jartzen du zorra kobratzeko. Epaitegiak ondasunak enbargatzeko agindua ematen du, eta horren eraginez, kaltetua eta bere familia kaleratzen dituzte.

- Alokairuari lotutako etxegabetzeak ere gertatzen dira?

Bai, sarri. Kasu honetan etxeko jabeak jartzen du demanda judiziala. Konponbide latza izaten dute kasuok gehienetan, etxeko jabeek ere arazo ekonomiko larriak dituztelako askotan.

- Nola bizi du familia bateko egoera hori?

Bakoitzak modu ezberdinean, baina orokorrean oso

gaizki. Psikologikoki arazo larriak izaten dituzte, batez ere, umeak tartean badaude. Jakin badakigu, guregana jo baina lehen, prozesu luze eta mingarria bizi izan dutela. Askotan emakumea bakarrik etortzen da, inizatiba hartzen baitute gehienetan. Etxera dirua ezin dugunean eraman, porrot egin dugula uste ohi dugu gizonok. Desmoralizazioa, agresibitatea, beldurra, frustrazioa, amorrua... denetik ikusten da.

- Jendeak isilpean eramaten ditu kontu hauek?

Bai, eta diskrezio handia eskatzen digute.

- Zein da etxegabetuen perfila?



Pentsa daiteke gizarte-maila baxuko herritarrei bakarrik eragin dakiekeela, baina kaleratzeak maila guztietako herritarrengan gertatzen dira: autonomoak, negozio txikiak zituztenak, inbertsioak egiteko maileguak eskatu zituztenak, bigarren etxebizitzak zituztenak... Etorkin gutxi datoz eta datozenak egoerari aurre egiteko baliabide psikologiko gehiago dituztela sumatzen dugu. Askok, aurretik ere, oso egoera larriak igaro izan dituzte seguruenik.

#### - Zein da Ermuko egoera?

Ermuan egoera berezia dugu, Udaleko Gizarte Zerbitzuek kudeatzen dituztelako etxegabeteak. Duela urtebete inguru 'Porrot Ekonomikoa egiteko arriskuan dauden familiei arreta emateko plan integrala' martxan ipini zen eta horren baitan kalean geratzeko arriskua dutenei laguntza eskaintzen diete. Horrela lan egiten duen eskualdeko herri bakarra da, aitzindaria da. Gainera, Udalak etxebizitza batzuk ditu, behar duten familiei uzteko prest. Nolanahi ere, etxegabeteen datuak publikoak dira eta badakigu Ermuko kopurua eskualdeko beste herrien parekoa dela.

- **Maila politikoa pausak ematen ari dira?**

Gobernuak ez zion kasurik egin Legegintzako Herri-Ekimenaren proposamenari, eta bere kabuz, indarrean dagoen Hipoteka Legea eraldatu zuen martxoan. Eraldaketa horrek baina, ez dauka zerikusirik egindako proposamenarekin: etxea ordainean ematea eta alokairu so-

## "Gure etxebizitza politika beste batzuk baino erasokorragoa izan da"

ziala ziren proposamenaren zutabe eta ez dira ez bata ez bestea onartu. Egia da aldaketa batzuk egin direla, baina neurri zorrotzak ezarri dituzte eta gutxiri egiten die mesede lege berriak, % 15 edo % 16 ingururi.

#### - Bankuen jarrera aldatu da azken urteotan?

Bai, aldatu da. Bankuek prozesu judizialak abiarazten jarraitzen badute ere, ez dituzte etxegabete-aginduak betearazten. Horren eraginez, familia batzuk etxea enbargatuta duten arren, hau da, etxea jada berea ez den arren, etxe horretan bizitzen jarraitzen dute. Linbo batean daude. Baina egia da oraindik ere kaleratzeak gertatzen direla.

#### - Arazo politikoa da edo banketxeen politikek eragiten dute?

Kaltetuak ez daki arazo politikoa den edo ez, bere arazoa da etxea galduko duela. Baina, jakina, arazo politikoa da. Plataformok presio politiko itzela egin dugu, demokraziaren historian herritarrek gehien babestu duten lege proposame-

na aurkeztu dugu, Parlamentura heltzea lortu duen barrenetako... Etxea ordainean ematea onartzeko aukera ezin hobea izan du aurtengo Gobernuak, baina... banketxeen interesen kontra joatea litzateke eta azkenean legea egin dute legea egin nahi izan duten eran.

#### - Beste herrialde batzuetan ere horrelakoak gertatzen dira?

Gure etxebizitza politika bereziki erasokorra izan da: jabetza sustatu da, higiezinaren espekulazioa onartu da eta etxea erostea posible egiten duen ekonomia sortu dute bankuek. Gaur egun Espainian 3.000.000 etxebizitza hutsik daudela diote. Beste herrialde batzuetan, berriz, alokairua askoz ere ohikoagoa da.

#### - Nola ikusten duzue etorkizuna?

Beltza. Krisiak aurrera jarraitzen du, lan-ezegonkortasuna da nagusi, soldata baxuak daude... Zoritxarrez, familia askoren etorkizuna kolokan egon daiteke hilabete batzuk barru.

Dorleta Vidal



**AMAIA HARATEGIA**



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**SEHIGA**



**LAN-BABESA**

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454 / Fax: 943 033 821  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Artisau-pizzak · Etxeko razio eta postreak



**ZUTIK PIZZERIA**

**Etxera eramango dizugu!**

**943 17 67 74** 

Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

Lurdes Rodriguez, harakina:

# “Bezero asko ez dira bezero soilak, lagunak baizik!”

Segoviako Lastras de Cuéllar herrian jaiota, 14 urterekin Durangora etorri eta 23rekin Mallabira ezkondu zen. Mikel eta Itziarren ama, eta 4 iloben amona. Ia 42 urtez Mallabiko harategian jardun ondoren, 64 urterekin jubilatuta egingo da.

- **Noiz zabaldu zenuen harategia?**

2014ko abuztuan 42 urte egingo nituen harategia zabaldu genuela. Urte hartan Mallabira ezkondu nintzen, 23 urte nituela.

- **Ofizioa familiarik dator kizu?**

Ez. Denda zabaltzeko erabakia hartuta, urte hartako maiatzetik abuztura bitarte-

an, lokaleko obrak irau zuen bitartean, Ermuko Ongarai auzoko harategi baten aritu ginen ikasten. Hemen, Luis Juanitonean, eliza ondoan zegoen denda ere aritu zen.

- **Orduan, zer komertzio zeuden Mallabian?**

Milagrosena, Brigidarena, Bastidako Juanitorea eta hemen ondokoa, Carmen Galiziakoarena. Beranduago

arrandegia ere ireki zuten gorago.

- **Hainbeste urteren ondoren, denda itxi eta jubilatuta egingo zarela jakin dugu...**

Bai... Urte asko dira lanean! Umeak izan nituenean bakarrik hartu nuen tartea; bestela 42 urtean ez dut sekula kale egin! Eta azkenean, lan egindako urte guztiak eta eskuetatik sufritzen dudana baloratuz, erretiratzeko erabakia hartu dut. Uda sasoi izango balitz, agian gehiago aguantatuko nuke, baina orain neguarekin eta datorren hotzarekin... Dagoeneko nahikoa lan egin dudala uste dut.

- **Zer suposatu du zuretzako harategiak?**

Oso gustura aritu naiz. Denda konpainia handia izan da, baita lan asko aldi berean ere ... etxean eta denda aritu naizelako, bi seme-alaba ere izan ditugu... eta egia esan, umeak hazteko sasoiari, nire amaginarrebak asko lagundu zidan.

- **Bezeroak nolakoak izan dira?**

Oso gustura egon naiz. Esaten den bezala, denetik dago baina, aipatzekotan, zabaldu nuenetik etortzen jarraitu dutenak dira, bezero fidelak; zer esango dizut, hainbeste urte ondoren bezero asko ez dira bezero, lagunak baizik! Egunero bertan elkartu eta lagun artean aritu gara. Koinatak esaten dit, ea orain denda itxita zer egingo duten!



- **Egunik jarri duzu dendaren itxierarako?**

Bai, abenduaren 31an itxi-ko dut. Ordura arte, dendak beti bezala zabalik jarraituko du goizeko ordutegian; eta egun horretara arte ere enkarguak jasoko ditut.

- **Norbait harategitaz interesatu da?**

Ez, guk ere ez dugu negozioa traspasatzeko asmorik. Harategiko lokala berez pisua da, eta aurrerago etxebizitza egokitzeko asmoa dugu.

- **...eta behin erretiratuta zerbait berezia egiteko asmorik baduzu?**

Ba ez, egia esan ez... askorik ere ez dut pentsatu. Gizona ere ez da opor zalea, jejeje... Hala ere, etxean geldi ez naiz geratuko. Lasai ibiltzeko asmoa besterik ez dut: ilobez disfrutatu, lantzean behin herrira jaitsi eta lagunak ikusi, kafea hartu... Gустuko gauzak egin behar dira!



**J. LUCAS**  
PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

**MALLABIKO**  
Herriko  
taberna

EUSKAL PRESO  
ETA IHESLARIA

ETXERA

Eguneko platera (3€)  
menua bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

943 174 952  
(asteartetan itxita)



## ASTO PROBETAKO EMAITZAK

Pasadan abenduko zubixen jokatu teko Mallabiko Pisu Neurtuko Asto Proben VII. Sarixe. Honek izen zien emaitzak:

IZENA	PISUE	UNTZAK	m
1. JANIRE ALEGRIA	324	71	---
2. ALEGRIA	317	57 %	4,80
3. UGALDE	348	56	0,62
4. IKER LEGARRETA	326	54	---
5. SATXIBAR	321	49	---
6. ZENGOTITA ELKARTEA	377	46 %	5,60
7. TXIBITER	372	46	3,20
8. GORKA DE LA CONCEPCIÓN	327	46	1,75
9. KARMELO IBARLUZEA	358	46	1,70
10. AITOR DE LA CONCEPCIÓN	326	38 %	2,95
11. PERURI	344	35	1,05
12. IÑIGO LANDALUZE	359	28 %	0,45

## GABON JAIXETAN DATOZENAK

### Abenduak 24, asteartie:

- 10:30ean plazan, I. Abixadan BTT martxa. 20 km. Herri ekimena.

- 19:00tan plazan, Olentzero Mallabira dator! Txaparrada Kultur Elkartie.

### Abenduak 26, osteguna:

- 18:30ean Herriko tabernan, Ipuin kontalarixe. Txaparrada Kultur Elkartie.

### Abenduak 27, ostirala:

- 11:30-13:30 / 16:30-19:30 Kirol Etxien, Haur parkie. Mallabiko Udala.

- 19:30ean Herriko tabernan, Parot doktrina hitzaldia. Txaparrada Kultur Elkartie.

### Abenduak 28, zapatue:

- Goiz eta arratsaldez, Gabon kantak baserriz baserri. Mendibil abesbatza.

- 19:30ean Herriko tabernan, Umorezko bakarrizketa. Txaparrada kultur Elkartie.

### Urtarrilak 6, astelehena:

- 17:00tan Kultur Etxien, Zinie. Futbito taldie.

## ETA URTE HASIERAN

**Auzo konposta.** Herrixen sortzen dan materixa organikue herrixen bertan kudeatzeko asmuaz Udalak auzo konpost proiektue martxan jarri dau. Urtarrileko lehen astien hasiko die hitzaldixekin; ordura arte izena emon ez dabenek be momentuen apuntau ahalko die ekimen honetan. Daueneko, hasitte dagoz herrixen jarriko dien konpost gunietako obrak: Ansoagan, Intxaurtin eta parkeko bi aldie tan (Arteiz azpixin eta bestie Mallabarrena aldien). Hitzaldixen ostien, auto-konpostagailuek banatzeko kanpainie be jarriko da martxan baserri eta lorategixek dittuzten etxientzako. Proiektu honetan parte hartuko dabenek erabiltzailiek % 15eko obarixe eukiko dabe.

Udalak **parkeko lurre** konponduko dau; dauena altxatu eta barrixe jartzeko 11.000 euroko aurrekontue dauke.



**Osasun Zentruko hobekuntzak.** Efizientzia energetikue hobetzeko, kristalezko teillatue konpondu eta margotu egingo da. Honetaz gain, Udalak eraikuntza berien dittuen lokal bixek egokittu be ingo dittu herrixen falta dien zerbitzuak eskaintzeko aukera emoteko. Udalak azaltzen dau, lokala polibalentie be izen leikela, zerbitzu bat baino gehixau emanaz. Berau deialdi publikoz esleituko litzake, eta interesatuak egonez gero, udarako martxan egotie aurrekusten da. Lan hauetarako 80.000 euroko aurrekontue dau.

**Auzo bideetako konpocketak.** Lasuen enpresa arduratuko da hainbat auzobide konpontziaz, hala nola Areitioko bideko kanposantu ingurue, Gerian Elkartetik Barrenengora bittartien eta baitte Goita eta Berano auzuetako bide zulek be.

Mallabiko 'Mapa Toponimikoa' Euskararen Egunien aurkeztu zan, 2.000 leku-izenetik gora jasotzen dabenek altxor txixike. Pello Mugarza eta Justo Azagirre ibili dira koordinatzaile lanetan, herritar ugarixen parte-hartze estimagarrixakin. Gabon inguruen ale bana bialduko da etxe guztietara.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



# Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
ERMUA



GOIENKALE Z/G  
ERMUA  
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE  
Tel. 943 770 598

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da



**AUTO-REPARACIONES  
AREITIO, S.L.**

634 errepide nazionala - 69,5 km.a Areitio Gaina 15 · 48269 - Mallabia  
Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15  
www.areitiomotor.com

administracion@areitiomotor.com / areitiomotor@areitiomotor.com



## TANTAZ-TANTAKO EKIMENEAN PARTE HARTZEKO GONBITEA

Ermuko Tantz Tanta ekimen sozialaren arduradunek urtarriaren 11n Bilbon egingo den ekimenean parte hartzeko gonbitea egin nahi die ermuarrei (informazio gehiago [www.tantaztanta.info](http://www.tantaztanta.info) webgunean). Horrez gain, abenduaren 27an, 19:00etan, euren 'olatutxo' sortuko dute Ermuan eta abenduaren 31n ohikoa den brindisa egingo dutela jakinarazi dute, 01:00an.

## ERMUKO UKEK BIKAITASUNAREKIN KONPROMISO DIPLOMA JASO DU

Bikaintasunerako Euskal Fundazioak Bikaintasunarekin Konpromiso Diploma eman zion Ermuko Udal Kirol Erakundeari abenduaren 10ean, Bilboko Euskalduna Jauregian (saria jasotzen duen EAEko seigarren udal kirol erakundea da Ermukoa). Azaroan, berri, Kirol Entitateen Hobekuntzarako Kudeaketaren Diploma Aurreratua jaso zuten UKEko arduradunek, Europar Batasunak ospatzen duen Kalitatearen eta Bikaintasun Astearen XIX. edizioaren baitan.

## Ermuko Bilduk herri batzarra egin du

Azaroaren 20an Ermuko Bilduk egindako batzarrak hiru ardatz izan zituen: legealdiko lehen bi urteotako balorazioa, aurrera begirako erronkak eta taldea herritarrengana hurbiltzeko bideak. Bi urteko balorazioak zeresan ugari izan zituen, bilerako antolatzaileen arabera: herri programaren helburuak bete diren, Udalaren funtzionamendua eta aurrekontuen eta proposaturiko proiektuekiko jarrera, besteak beste. Bestalde, aurrera begira taldeak duen erronka nagusia da pertsonaren ongizatean oinarrituriko proiektuetan aritzea. Lan taldearen inguruko hausnarketari dagokionez, taldeak asko eskertuko luke boluntario gehiagoren parte-hartzea. Gainera, Bilduk herri mailako aldizkaria kaleratuko du hiru hilean behin, "komunikazio lanari bultzadaxo bat emateko", arduradunen hitzetan.

## Errotabarri ET-k 'Eskubaloien Eguna' ospatu du

Eskubaloien Eguna dela-eta, Bera Bera taldean jokatzen duen Matxalen Ziarsolo ermuarri omenaldia egin zion Errotabarri Eskubaloien Taldeak abenduaren 7an. Gainera, maila goreneko partida bi jokatu ziren kiroldegian: ABFko Bera Bera Zuazoren kontra eta Errotabarri Senior taldea Euskadiko Selektzio jubenilaren kontra. Bera Berak (32-23) eta Euskadiko Selektzioak (23-18) irabazi zuten, hurrenez hurren. Kiroldegia jendez gainezka egon zen, arduradunek jakinarazi dutez, eta eskerrak eman nahi dizkiote Euskal Eskubaloien Federazioari, bertara hurbildu zirenei, Udalari eta Udal Kirol Erakundeari.



## Ermuko saltokiek parte hartuko dute Bono-Dendan

lazko arrakasta ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioak (CECOBI) 'Bono Denda' kanpainaren bigarren edizioa egingo dute aurten. Bono hori BBKren zerbitzu askotarako edozein kutzazainetan eskuratu ahal izango da, 40 eurotan, eta kanpainari atxikirik dauden saltokietan 50 euroko erosketa egiteko eskubidea emango du. Guztira 20.000 bono jarriko dira zirkulazioan eta urtarriaren 31ra arte erabili ahal izango dira, 10 langile baino gutxiago dituzten dendetan. Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkartek emandako datuen arabera, 38 saltokik hartuko du parte aurtengo kanpainan, baina horiez gain, Elkarteko kide ez diren saltoki askok ere parte hartuko dute. Guzti-guztiak erakuslehoetan dituzte jada 'Bono Denda'ren marka bereizgarria. Ekimen horren bitartez, BFAK eta CECOBIn krisi ekonomiko gordina jasaten ari den sektoreetako bati ziztada eman nahi diote.

Komunitateak

# San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

## ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41

NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

# KRABI

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA

## OINAK

### LEIRE MAYORA PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

## 'Janariak liburu truk' kanpainak 400kg janari batu ditu



Udal Liburutegiak, Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkartearekin batera, eta Gurutze Gorriaren laguntzarekin antolatutako kanpainari esker, 400 kilo elikagai ez-galkorrak batu ditu. Jasotakoa Gurutze Gorriari emango dio eta horrek Elikagaien Bankura eramango du abenduaren 19an. Kanpainak 10 egun iraun du eta 17 saltokik hartu dute parte. Bestalde, janari ez-galkorra edo iraungitze-data handiko produktuak saltokietara

eraman dituzten ermuarrek, liburua edo DVDa jaso dute trukean. Antolatzailerek balorazio oso positiboa egiten dute eta "denden arabera janari bilketa oso desberdina izan bada ere, azpimarratzekoa da dendarien harrera ona eta kanpaina honetan parte hartzeko azaldu duten gogo ona". Bestalde, elikagaiak eraman dituzten ermuarrei eskerrak ematen dizkiote Udal Liburutegiko arduradunek.

## XX. Juanita Ibaibarriaga lehiaketako sariak banatu dira



Juanita Ibaibarriaga Ipuin eta Erreportaje Lehiaketaren irabazleak honako hauek izan dira: Manex González (3. maila), Jukene Rech (4. maila), Joseba Maguregi (5. maila), Irune Basagoiti eta Garazi Aizpurua (6. maila), Mikel Ismael Kaye (DBH1), Edurne Garrido Conde (DBH2) eta Paul Bustindui (2. modalitatea). Arduradunek diotenez, ikastetxe guztietako ikasleek parte hartu izan dute eta erreportaje atalean ere, inoiz baino lan gehiago jaso izan dituzte, herriari lotutako hainbat gai ardatz zituztenak. Saria jaso duten lanak Ermuko Udaleko webgunean daude irakurgai. (Argazkian: Paul Bustindui eta Euskara Teknikaria, Fernando Aranberri).

## KULTUR TXARTELA ERABILTZEKO AUKERA EMANGO DU UDAL KULTURA SAILAK

Ermuko Udal Kultura Sailak parte hartuko du Bizkaiko Kultur Txartelaren kanpainan. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako ekimen horri esker, zine emanaldi eta ikuskizunetarako sarrerak eta zinemaren hileko bonuak merkeago erosi ahal izango dira. Txartelak abenduaren 16tik 31ra arte erosi beharko dira, BBKko orotarako kutxazainetan (Bizkaian), eta urtarrilaren 31 baino lehen erabili beharko dira. Hiru txartel mota egongo dira eta guztiek 40 euroko gastua egiteko aukera emango dute. Txartelak Ermua Antzokia eta Lobiano Kultur Guneko (jazz-blues zikloa) ikuskizunetarako balio du bakarrik. Kanpainaren helburua kultur produktuen kontsumoa bultzatzea da.

EGIN ZAITEZ  
AKERLEIREN  
JARRAITZAILEA

f

facebook.com/Akerlei

## AURTENGO GABONETAN IRABAZ EZAZU IPOD SHUFFLE BAT!!

Sartu gure Facebook-ko jarraitzaileen orrian, parte hartu zozketan eta oparia eraman ezazu. Apple Ipod Shuffle bikain hau egokituta

facebook.com/Akerlei argibide gehiagorako



# Akerlei

hizkuntzak

Eskaintza honek 2014/01/6ra arte irauten du

943 17 66 32

Bizkaia etorbidea, 5 behea

Apple Ipod Shuffle Egokituta

Drogeteniturrri, 218 zkia.

# Gabonetako erosketa gida

**nane**  
moda

**ONLY. JACK & JONES. MORGAN**  
MORGAN DE TOI

Santiago plazatxoa 3 · ERMUA · [www.facebook.com/nane.moda](http://www.facebook.com/nane.moda)

**BONO DENDA**

El armario de Natalia

Zubiaurre 29  
ERMUA



**IZAGIRRE**

Calvin Klein  
Punto Blanco  
DIM  
Armani  
Playtex  
Wonderbra  
Freya...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**



**puetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale 9 · Ermua · 943170065  
Zuloagatarren 7 · Eibar · 943531500



Poltsak, karterak, gerrikoak,  
manikurak, maletak,  
osagarriak eta opariak.

**SAGARDUI**  
poltsak

**BONO DENDA**

943 170305  
sagardui@sagardui.com

Zubiaurre 29  
48260 Ermua (Bizkaia)



**PABLO** GINETAKO AUTOZERBITZUA  
AUTOSERVICIO DE CALZADO

**BONO DENDA**

Sexto Centenario 19, ERMUA  
943 17 54 09



**F. PASCUAL** Arane, 6  
Tlf.: 943 20 61 64  
Fax: 943 20 85 43  
20600 EIBAR  
(Guipúzcoa)

**VIRGINIA PASCUAL**  
Zubiaurre, 36-38 (bajo)  
Tel y Fax: 943 17 68 28  
48260 ERMUA (Vizcaya)

MUEBLES DE COCINA INTERIORES

[www.cocinaspascual.com](http://www.cocinaspascual.com)



**Marfil** ILE-APAINDEGIA BAINO GEHIAGO

Osasuna Edertasuna Estetika

Goienkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09




Ferretería **ANBOTO** Burdindegia

Zorionak eta urte berri on!

**BONO DENDA**

Zubiaurre 25  
943 17 69 76





**Oparitu ikusmen osasuna!**



optika  
**irze**

Probaleku 7 · Ermua  
943 17 46 51

**YONARI**  
bisuteria eta osagarriak



**Zorionak eta urte berri on gure bezero guztiei!!!**

**BONO DENDA** Erdikokale 3, behea

**Desembre te**



- Teak, kafeak eta eztea.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
- Teontziak, katiluak...

**Oparitzeko neurritira egindako otzarak!**

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

**etxedreams**  
COLCHONERIAS



**Atsedendiaz hitz egingo dugu?**

**Zubiaurre 32 (Ermua)**  
943 177 041

**MAREA**

**Zorionak eta urte berri on!**



Salgai: **YONARI**  
bisuteria y complementos



[www.marea.es](http://www.marea.es)  
[facebook.com/mareawatches](https://facebook.com/mareawatches)



# Merkatari eta ostalariek ekimen ugari egingo dituzte Gabonetan

Ekimenez josita etorriko dira aurtengo jai egunak: Gabon zahar gaueko kanpaiak aurreratu, ludoteka, sariak eta kalejirak burutuko dira eta IV Erakusleho Lehiaketa martxan ipiniko da, besteak beste.

Ermuko Udalak eta Merkatarari eta Ostalarien Elkartek babestuta, gabon zahar gaueko kanpaiak hilaren 28an egingo dira Ermuan, larunbatean. Elkarteko kide diren taberne eta ez diren ere hartuko dute parte ekimen honetan: DQ, Carpe Diem, Karikato, Scorpio, Torrekua, Zabal, Akelarre, Titanic, Sorgin, Jai, Moloko, Zutabe, Outomuro eta Txalaparta.

Aurreko egunetik hasiko da giroa, ostiraletik, eta 18:30etik 21:30era bitartean kanapeak edo gozokiak eskainiko dituzte tabernok. Larunbatean, berriz, 18:30etik 21:00ra ere kanapeak eskainiko dira eta 200 euroko balioa duen otzaren zozketan parte hartzeko txartelak banatuko dituzte.

22:00etatik 23:00etara kontzertua egongo da plazan eta bukatutakoan cava ko-

pak zerbitzatuko dira 2 eurotan. Koparekin batera, Gabonetako txanoa eta 12 mahats jasoko dituzte bezeroek. 00:00etan elizako kanpaiak joko dituzte eta ostean karaokea, zozketak eta lehiaketak egingo dira aipatutako tabernetan.

## Kalejirak

Ermuko Merkatarari eta Ostalarien Elkartek txikipark-ludoteka eskainiko du abenduaren 21etik urtarrilaren 4ra bitartean, Probaleku 4n (Mimitos denda ohian). Bestalde, hilaren 21ean, larunbata, Irulitxa bandak kalejira egingo du 18:30etik aurrera eta, honekin batera, Ermuko komertzioaren iratxoak, 'Dendargik', gozoki eta piruletak banatuko ditu. Bukatutakoan 20:15ean, Ermua Txartela erabili dutenen arteko sari-banaketa egingo da eta 20:30ean txis-



torra eta sagardoa dastatzeko aukera izango dute bertaraten direnek. Astelehenean, hilak 23, 'Tarumba percusión' taldeak kalejira egingo du 18:30ean hasita. Larunbatean, hilak 28, kalejira musikala burutuko da 18:00etan, trineo, iratxo eta Mickey Mousekin.

Bestalde, abenduaren 5ean, domeka, saltoki batzuk zabalik egongo direla aditzera eman du Ermuko

Merkatarari eta Ostalarien Elkartek.

IV. Erakusleho Lehiaketa ere martxan dago jada eta hilaren 20an jakinaraziko dira irabazleen izenak. Epaimahaiak aukeratutako saltokiak 700€ jasoko ditu (saltokia modernizatzeko erabili beharko ditu) eta herritarrek aukeratutakoak, berriz, 300€ jasoko ditu (modernizatzeko proiektua egiteko).

Dorleta Vidal

**zapatUllas** 

[www.zapatullas.com](http://www.zapatullas.com) "Eskuz margotuak"

Gainera: etxeko zapatilak, poltsak, Disney produktuak, osagarriak...

San Inazio 2, behea - ERMUA - 669731867 - [zapatullas@gmail.com](mailto:zapatullas@gmail.com)

**Pub Dakota**



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
[dakotaermua@hotmail.com](mailto:dakotaermua@hotmail.com)





Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

**EGUZKI LORE**



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)



**Ermuacentrocomercial**

ERMUKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE COMERCIANTES Y HOSTELEROS DE ERMUA

**Hemen zeu  
zara gunea**

*Zorionak*



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,  
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

# MAITE AREITIOAURTENA

## - Gaztaroan...

Oso pozik bizi izan nintzen. Lagun asko nituen, anai-arrebak zaintzen nituen eta errekan biltzen ginen, hori zen herriko zentroa.

## - Zer ikasi zenuen?

Pelukeria ikasi nuen Eibarren, 14 urterekin. 18rekin nire pelukeria zabaldu nuen.

## - Ilea apaintzen zenuen garaian...

Oso pozik eta gustura egon nintzen, harreman pila nituen. Baina, eskuetakoz hezurak oso txarto nituen, etxean aritu naiz lanean.

## - Zein bide hartu zenuen ondoren?

Hizkuntza Eskolara joan nintzen ingelesa eta euskara lantzeko. Eta Ermuko Margo Eskolan margolaritza ikasi nuen. Egun, herriko sahararien aldeko elkartean kolaboratzen dut gauza puntualak eginez.

## - Nola lasaitzen duzu zure burua?

Spinning, igeriketa, pilates edo dantza eginez. Orain salsa ikasten hasi naiz.

## - Biziorik?

Martinia! Ez dut asko hartzen hala ere.

## - Zaletasunik?

Zinea, mendira joatea, irakurtzea...

## - Zein motatako liburuk dituzu gustuko?

Nobela historikoak eta biografiak.

## - Mendia ala hondartza?

Biak, segun noiz. Udan, hondartza eta neguan, mendia.



**65 urte ditu Maite Areitioaurtenak eta jubilatuta berri dago. 34 urtez herrikoen ilea apaintzen ibili ondoren, lana utzi egin behar izan zuen osasun arazoak medio. Zortzi anai-arreben arteko hirugarrena da. Ignacio Ziarsolorekin ezkondu da eta hiru seme-alaben gurasoak dira.**

## - Musika estilo bat aipatzekotan ...

Euskal musika: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete... Fito, Joan Manuel Serrat eta Joaquín Sabina ere asko gustatzen zaizkit.

## - Kuban egon berri zarete ezta?

Bai, jendea oso alaia eta oso ona da.

## - Munduan barrena bidaiatu duzu...

Europa nahiko ezagutzen dut, Frantzia, Italia, Ingalaterra, Kroazia, Suitza, Polonia eta Austria izan naiz.

## - Nora bidaiatuko zenuke?

New Yorkera joatea gustatuko litzaidake.

## - Amets bat?

Osasuna eta alaitasuna edukitzea. Berdintasuna lortzearekin ere amesten dut.

## - Zein kolorek definitzen zaitu?

Kolore bero eta sepiek.

## - Zein da eguneko unerik gozoena?

Bazkal ostea, gustuko ditudan gauzak lasai-lasai egin ditzakedalako. Kafe bat hartu, periodikoa irakurri...

## - Alabaren eskubaloi-partidu guztiak jarraitzen dituzu?

Oso urrun joaten bada ez, bestela bai. Gainera alabari asko gustatzen zaionez, oso pozik dabilenez eta oso ona denez, ama ere pozik!

## - Jateko gogokorik?

Onddo-nahaskia eta txuleta eder bat piper berdeekin.

## - Zerk kentzen dizu loa?

Familiar arazoren bat dagoenean.

## - Erraz barre egiten duen horietarikoa zara?

Bai! Hanka sartzeak egiten ditudanean, esaterako.

## - Erraz haserretzen zara?

Ez! Ez ditut benetako haserreak izaten.

## - Zerbaitek urduritzen al zaitu?

Publiko aurrean berba egiteak.

## - Berriz jaioko bazina...

Anbulantzia gidaria izango nintzen. Gidatzea, jendearekin harremanak izatea eta arau-hausteak egitea gustatzen zaizkit!

## - Zer irakatsi dizu bizitzak?

Dena erlatibizatzen. Gauzak ez dira norberak pentsatzen dituen modukoak, testuinguruaren arabera baizik.

## - Zer falta da herrian?

Saihesbidea, gure etxe partetik kotxe eta kamioi asko pasatzen direlako. Eta jendeak denonak diren gauzak zaindu beharko lituzke.

## - Nola definituko zenuke zure burua?

Oso 'presumida' naiz. Ondo joatea, guapa jartzea eta nire burua ondo ikustea gustatzen zait.

Leire Elustondo

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Patata-tortilla...

ENKARGYAK  
943 030 299

**OUTUMURO**  
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Asteleheneretik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



Julene Irazu, gimnasia hipopresiboko irakaslea:

# “Gimnasia hipopresiboa ez da panazea, baina onura asko ditu”

Julene Irazu fisioterapeuta da eta duela 6 urte pasatxo murgildu zen hipopresiboan munduan. Ariketa abdominal honen onurek erabat liluratu zuten, berehala eta sakonki gainera, eta azken bi urteotan diziplina hau ezagutarazten eta zabaltzen dihardu Kiroldagian.

**- Zer da gimnasia hipopresiboa?**

Jarrera-sekuentzia ezberdinez osatutako gimnasia da, arnasketa mota jakin batekin egin beharrekoa. 80. hamarkadan sortu zen, Belgikan. Helburuak dira postura hobetzea eta gorputzeko muskuluak orekan mantentzea. Erditu eta gero praktikatzen da, lekuz kanpo dauden organoak bere lekura bueltatu daitezten, bai gihar pelbikoak zein abdominalak, gernu-puxika eta alua.

**- Eragin horiek egiaztatu daitezke?**

Bai, ukipen ginekologiko baten bidez organoen kokapena ikus daiteke. Astean ordu erdiz ariketa hipopresiboak eginez gero, hilabete epean organo horiek bere lekura bueltatzen dira. Egunerokotasunean zure postu-

ra automatikoki hipopresiboetara egokitzeko, aldiz, burmuinak 6 hilabete inguru behar izaten ditu.

**- Onurak lortuko dituztenak, beraz dira, erditu berri direnak bakarrik...**

Ez, ikerketek erakutsi dute gimnasia hori guztiontzako dela aproposa, guztiok pasatzen dugulako denbora asko jarrita edo denbora asko zutik, postura txarrean. Gimnasia horrek kontrakturatuta dauden muskuluak luzatu eta energia falta duteinei indarra ematen die. Beste aldaera bat ere badu, Reprocessing Soft Fitness (RSF), hau da, hipopresiboak fitnessera egokituta.

**- Zein eragin dute ariketa horiek gorputzean?**

Bareak globulu gorriak sortzen ditu haurdunaldian, ama zein umea elikatzeko, eta ariketa hipopresiboak egitean ere barea lanean hasten da. Odolean dagoen oxigeno kopurua igo egiten da eta ondorioz, energia gehiago dugu eta gutxiago nekutzen gara. Hormonak ere erregulatzen ditu eta horrek norberaren poztasunean eragiten du. Egia da



hipopresiboak ez direla panazea, baina onura asko dituzte!

**- Gizonezkoek praktikatu dezakete?**

Bai, baina mutilek bi helburu izaten dituzte kirola egitean: izerditu edo gimnasioan ‘matxakatu’, eta hipopresiboak oso lasaia iruditzen zaizkie. Baina mutiletan ere, beranduago izan arren, lesioak agertzen dira. Ohikoenak: iztai-herniak, abdomen-herniak eta disko-herniak.

**- Eta adinari dagokionez?**

Ez dago mugarik, baina ez da gomendagarria tentsio altua dutenentzat, ezta haurdunaldiaren hasieran daudenentzat ere.

**- Loturarik al dute gimnasia hipopresiboak eta fisioterapiak?**

Bai, uroginekologian espezialitatea dut eta gimnasia hipopresiboa espezialitate horren terapia bat da.

**- Uroginekologian ere ari zaren zara?**

Bai, hiru urte pasatxo daramatzat Bilboko klinika batean lanean, ostegun eta ostiraletan, uroginekologian: erditu-aurrekoak, erditu-ostekoak, inkontinentziak, sexu arazoak eta horren inguruan dauden problema guztiak tratatzen ditugu. Uroginekologian eta digestibo mailan oso ezaguna den Sara Esparzarekin egiten dut lana.


**- Horrez gain, kontsulta propioa duzu eta Kiroldagian klaseak ematen dituzu...**

Bai, Kiroldagiko arduradunei proposamena egin nien eta onartu egin zuten. Hipopresiboek zabalkundea eman nahi nien eta gainera publikoan hitz egiten trebatzeko aukera lez ikusi nuen.

**- Hipopresiboetan formazio jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai, datorren astean sexu hipopresiboaren inguruko lehen ikastaroa egingo da eta parte hartzeko asmoa dut.

Dorleta Vidal



  
**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA  
**EGANA**  
ALDAGAILUAK  
GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK  
DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

## 20 urte 'ikusten laguntzen'

**I**ngurumen Hezkuntza sortu genuenean, duela 20 urte, ermuar gutxi zekien zer zen Ingurumen-Sentsibilizazioa, ezta zertarako balio zuen ere. Are gutxiago zer zen Tbilisiko (Georgia) Konferentzia, ezta ere bertan gauzatu zena Unescori esker: katalizatzailer eta sentsibilitate transformadore erraldoia eta mundua aldatzeko borondateen benetak kaleidoskopioa izan zen. Eta garrantzitsuena: aldatzeko grina besteei transmititu zien.

'Ikusten laguntzeko' eta inguruan daukagunarekiko sentsibilizazioa pizteko bokazioarekin, zerbitzu berria abiarazteko proiektua aurkeztu zitzaion 1993an Ingurumen Zinegotzigoari. Herriko txikiak, euren begiekin, inguruan zuten munduaz jabeazteko helburuarekin, ikasgelatik maiz at-

raz eta hainbatetan oso urrun sentitzen zuten eta ia beti ezezaguna egiten zitzairen munduari gerturatuz.

20 urteko ibilbidean zehar, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak umeak markatzen dituzten bizi-erperientziak sortzeko nahia izan du, munduarekiko afektibitate-loturak sortuz eta hura zaintzera bultzatuz.

Gai anitzak jorratu ditugu eta, urteak aurrera egin ahala, gai horiek aldatzen joan dira, zaborren tratamendutik mugikortasun ja-sangarrira. Baina hala ere, erronka honetan parte hartzen duten umeen aurpegiek gizakiak duen onenaz hitz egiten digute: babesaz, zirrarez, sorpresaz eta enpatiaz.

Ingurumen Hezkuntzako 20 urte hauek ezin lirerateke kuantitatiboki baloratu, baina gaurko



*Isa Prieto*

eta iraganeko umeek zer transmititu diezaguketen horren adierazle izan daitezke: oroimenen dituzten Debatik egindako osteratxoak, goiz zoroak Azterkostarekin trenean egindako ibilbideak edo babesgabeko teilatuetan egindako esplorazioak, bertan ezkutututako energia berri-erregien sekretuak topatu nahian.

Barreak, emozioak, alaitasunez gainezka egitea, gogoak eta jakin-mina dira, beharbada, denbora honetan ereindako lanetik hazitako fruituak eta ordainsaririk onenak.

**Herriko txikiak inguruan  
duten munduaz jabeazteko  
helburua du Zerbitzuak**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*  
Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




**D. ARRAL 97 S.L.**  
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892  
arral@arral97.com  
www.arral97.com

**Ardo banatzailea:**  
Luis Cañas  
Cantosán Verdejo  
Viña 65 Verdejo  
Amaren  
Añada Real  
Cava Oriol Rosell  
Nitida  
Montepinos



**Abenduaren 30ean**  
Zorionak Nerea zure  
3. urtebetetzean.  
Muxu handi bat zure  
familiararen partez.



**Abenduaren 21a**  
Zorionak Tio  
Juanjo!! Musu handi  
bat Jone, Aitzol eta  
etxeko guztien  
partez. Ondo pasa.



**Abenduaren 7an**  
Zorionak Iraia. Musu  
potolo bat etxekoen  
partez. Ondo pasa  
eguna.



**Abenduaren 22an**  
Zorionak Irune!!! Zurekin, guri bai  
tokatu zitzaigula loteria 22an!!  
Jarraitu beti bezain jator eta alai!  
Patxo handi bat familia guztiaren  
eta bereziki Markelen partez.



**Urtarrilaren 16an**  
A ze pare! Zorionak munduko seme-  
alaba onenei 25. urtebetetzean.  
Ondo-ondo pasa, egunero ez da  
mende laurdena betetzen-eta.  
Musu handi bat etxekoen partez.



**Abenduaren 4an**  
Zorionak Ane!!!!  
Ondo pasa zure 7.  
urtebetetzean.  
Musu handi bat  
etxeko guztion  
partez. Muuaaak!



**Abenduaren 12an**  
Zorionak Uxue,  
jator eta alai  
jarraitu!



**Abenduaren 31n**  
Zorionak Oier zure  
lehenengo  
urtebetetzean.  
Muxu handi bat  
familia osoaren  
partez!



**Abenduaren 30ean**  
Zorionak Aimar!!!  
Ondo pasa zure  
7. urtebetetzean.  
Musu handi bat  
Maitane, aita eta  
amaren partez.  
Maite zaitugu!!!

Hurrengo zenbakirako  
azken eguna:  
**URTARRILAREN 22a**

hamburguesería  
**TITANIK**

*Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**MUGA** **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

# MALLABIA 1962

Argazki hau 1962 edo 1963ko otsailaren 21ean atera zen. Mallabiko probalekuan 'desafiua' egin omen zen: Etxetxebarriko bi behi suitzar, Longaren idi bakar baten kontra. Oso entzutetsua izan zen eta Angel Zelaietak bertsoak ere jarri zituen gertaera hau zela-eta.

*Mallabiako herri txikian  
egin dabe apostatu  
Etxetxebarrin behi suizak  
Longan idiai jokatu  
karreteruak lehenenguantzat  
ugazaba eta auzoku  
Longak libriak, txikia anaiak  
berantzat ditu aukeratu*

Tartean agertzen dira: Mateo Amesti, Eusebio Arregi, Jose Antxia, Angel Uriarte, Jose Iturriaga eta Carlos Garitagoitia.



# ERMUA 1943



*"Paristik natorren artista bat naiz ni. Ondo jotzen det! Baita guk ere... Txirula nik jotzen det... Fi-fi-fi, fi-fi-fi, fi-fi-fi, fi-fi-fi, fi-fi-fi, fi-fi-fi, fi-firi-fi-fi-fi-fi".*

Txirulari: Fede Iturriagagoitia, Agustin Aranberria, Santi Onandia eta Santos Totorika.

Makilari eusten, zuzendari lanetan haren baten eta txapela pasatzeko prest, erdiko Juan Ganboa.

*Zure argazki zaharrak atal honetan argitaratu nahi badituzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1) edo deitu 943 17 93 50 telefonora. Argazkiek 25 urte izan beharko dituzte gutxienez eta momentuan eramango dituzu bueltan.*





**Igeltserotza - Iturgintza**

***Errekalde***

Esteban Goikoetxea  
Errekalde baserria, 1  
48260 ERMUA Bizkaia  
Tel: 662 51 42 68  
errekalde.gm@gmail.com



**URRETA** burdindenda

✕ Etxea	✕ Giltzak
✕ Tresneria	✕ Zerrailgintza
✕ Brikolaia	✕ Kit altzariak
✕ Rielak	

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**Orri arrosak eta urdinak egon ohi dira jostailu-katalogoetan. Bai neskatoek zein mutikoez eurentzako ez omen diren orriak salto egiten dituzte, jostailuak begiratu gabe, jostailu horiek gustuko izan ahal dituzten jakin gabe.**

**XX. mendearen erdialdera hasi zen jostailuen industria garatzen eta 70. hamarkadan sexu bakoitzari zegokion kolorea finkatu zen. Iazko Gabonetan, Estatuan egin ziren iragarkien % 67 sexistak ziren.**

**Umeei jostailuak erostean, sexistak diren kontuan izaten duzu?**



Bai, kontuan izaten dut. Izan ere, behin liburu bat erosi nuen eta oso sexista zenez, erreklamazioa egin nuen Emakunderen bitartez. Liburua merkatutik erretiratu zuten. Bi alaba ditut eta horrelako kontuak zaindu behar ditut.

**Gaizka Areitioaurtena, 51 urte**



Ez dut horretan arretarik ipintzen, semeari gustatzen zaiona erosten diot. Gabonetarako, esaterako, sukaldetxoak eta lanbasa eta kubotxoak erosi diogu, baita kotxe batzuk ere. Berdin dio zer, umeari gustatzen bazaio.

**Virginia González, 34 urte**



Nire semeak txikiak zirenean beste garai bat zen, ez zegoen horren aukera zabalik jostailuetan. Orain, nik egoki ikusten dudana erosten diet inguruan ditudan umeei, eta eurek gustuko dutena, noski.

**Itziar Unanue, 65 urte**



Nik uste dut ez duela zerikusirik jostailua neska edo mutilarentzat den, probatuta dago. Nire lobari gehiago gustatzen zaio eskulanekin eta kotxeekin jolastea, panpinekin baino, eta egoki ikusten dut. Bera entretenitu behar da eta berari gustatu behar zaio.

**Jose Luis Areitioaurtena, 69 urte**

**Tasio eta Sabino**

- Opari bat egiteko, kolonia bat nahi genuen.  
- Neskarentzat edo mutilarentzat?

- Berdin da. Opariekin ez da sexista izan behar.

**ZINEA**

**4tik 6ra**  
**11tik 13ra**  
**18tik 20ra**  
**25etik 27ra**  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 Hainbat ordutegi.  
 Ermua Antzokian.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 2**  
**Hilak 9**  
**Hilak 16**  
**Hilak 23**  
**Hilak 30**  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 5**  
**Hilak 12**  
**Hilak 19**  
**Hilak 26**  
**Hilak 29**  
 Zehaztu gabeko filmak.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.

**MUSIKA**

**Hilak 4:**  
 Elkartasuneko  
 Kontzertua: Orihen +  
 Guerrero Estelar.  
 22:30ean.  
 San Pelaio plazako  
 aterpean.

**Hilak 10:**  
 Opera proiektzioa:  
 Verdiren 'Nabucco',  
 Milango Scalatik.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 8€

**Hilak 18:**  
 Blues Kontzertua:  
 Jimmy Barnatan &  
 Band. 20:00etan.  
 Lobiano Kultur Gunean.  
 Sarrera: 8€

**Hilak 31:**  
 Kontzertua: Paula Rojo.  
 22:15ean. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 10€



**ANTZERKIA**

**Hilak 17:**  
 'Los miércoles no  
 existen', Gorka Otxoa,  
 Dani Guzmán,  
 Eva Ugarte, Dani  
 Muriel, Irene Anula eta  
 Mónica Regueiroekin.  
 22:15ean. Ermua  
 Antzokian. Sarrera: 12€



**Hilak 24:**  
 Antzerkia: 'Autorretrato  
 de un joven capitalista  
 español'.  
 Alberto San Juanekin.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10€

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 7tik 19ra:**  
 Margoak:  
 Manu Montiel.

**Hilaren 20tik 2ra:**  
 Argazkiak: 'Africa'.  
 Rafael Marrodán.  
 18:00etatik  
 20:00etara.  
 Lobiano Kultur Gunean.

**UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK**

**Hilaren 4ra arte:**  
 Gabonetako Haur  
 Parkea:  
 hainbat ekitaldi.  
 11:00etaik 13:00etara  
 eta 16:00etatik  
 20:00etara.  
 Udal Kiroldegian.

**Hilak 5:**  
 Errege Magoen  
 kabalgata.  
 18:00etatik aurrera.

**Hilak 25:**  
 Haurrentzako antzerkia:  
 'Babia', Ganso y Cía  
 taldearen eskutik.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4€



**BESTELAKOAK**

**Hilak 26:**  
 Extremadurako  
 txarri-boda.  
 10:00etatik aurrera.  
 Extremadurako Zentruan.

Patxi López

**TXINDURRI  
 TALDEA  
 Tokian  
 tokiko**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
 - ITSASKIAK  
 - ARRAIN FRESKOAK ETA  
 IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
 OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
 " 17 24 33 (etxea)  
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
 ERMUA

**Infreñu  
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

*Bitxi-denda  
Erloju-denda*



*Tailer propioa*

DANIEL VÍOR



LOTUS

LUXENTER



PLATADEPALO



Plata firmada  
PEDRODURAN  
1886

SALVATORE  
PLATA



*Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte*

SENÉN BITXI-DENDA ERLOJU-DENDA

San Pelaio zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA

Webgunea: [joyeriasenen.com](http://joyeriasenen.com) · Emaila: [joyeriasenen@gmail.com](mailto:joyeriasenen@gmail.com)



*Zorionak  
eta  
Eguberri On!*



Inplanteak - Aho kirurgia  
Ortodontzia  
Periodontzia  
Zuriketak - Estetika  
Odontologia orokorra  
Protesiak

P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS  
OCASO - DENTYRED - AZKARAN

Dra. Olatz García Arregui  
San Pelayo 5, 1. Ermua (Bizkaia)

**943 17 04 04**